

HAURREKIN

OSPATZEN DIREN MEZETARAKO

I. ESKER ONEZKO OTOITZA

Jauna zuekin. **R̄.** Eta zure izpirituarekin.
 Gora bihotzak. **R̄.** Jaunari dauzkagu.
 Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R̄. Egoki da eta zuzen.

Jauna, Aita guziz ona, zuk bildu gaituzu,
 eta zure aitzinean gaude zu goresteko,
 eder eta handi zirela bihotz bihotzez aitortzeko.

Gora zu, munduan diren gauza eder guziengatik,
 eta gure bihotzetan emaiten daukuzun bozkarioarengatik.

Gora zu, eguneko argiarengatik,
 eta gure gogoak argitzen dituen zure hitzarengatik.


Gora zu, lurrarengatik,
 eta lurrean bizi diren gizon-emazteengatik,
 eta zukanik daukagun biziarengatik.

Bai, guziz ona zira, maite gaituzu,
 eta miragarriak egiten dituzu guretzat.
 Horrengatik, denek batean kantatzen dugu :

Denek : [Saindu, Saindu, Saindua] (*bis*) diren guzien Jainko Jauna.
 Hozana zeru gorenetan ! (*bis*)



Sain-du, sain-du, sain-du - a, _____ Sain - du, sain-du, sain-du - a _____



di - ren gu - zi - en Jain - ko Jau - na.



Ho-za - na ze-ru go - re-ne - tan. Ho-za - na ze-ru go - re-ne - tan.

Zuk, Aita, gogoan dituzu beti gizakiak,
 eta ez duzu nahi haienganik urrun egon.
 Horrengatik igorri zinuen guganat zure Seme maitea :
 gu salbatzerat etorri zen, eriak sendatu zituen,
 bekatoreeri barkamena eskaini zien
 eta guzieren zure maitasuna erakutsi zien ;
 haurrak bereganat hartu eta benedikatu zituen.
 Horrengatik, esker onez beterik, kantatzen dugu :

Denek : Zeru lurrak beterik dauzka zure distirak.
 Hozana zeru gorenetan ! (*bis*)

The musical notation consists of two staves in G major. The first staff contains the melody for the first line of lyrics, and the second staff contains the melody for the second line, which is a repeat of the first line.

Ze - ru lu - rrak be - te - rik dauz - ka zu - re dis - ti - rak.

Ho - za - na ze - ru go - re - ne - tan ! Ho - za - na ze - ru go - re - ne - tan !

Aita guziz urrikaltsua,
 ez gira gu bakarrik, zu goersten zaitugunak :
 lurraren alde guzietan zabalduz dagoen
 eta Eliza den zure herriak ere goersten zaitu.
 Guk, Eliza osoarekin batean, otoitz egiten dauzugu :
I. gure Aita sailduarekin, eta **I.** gure Artzainarekin.

Zeruan Maria Birjina dohatsuak,
 hunen senar Josep sailduak,
 eta Apostolu eta saildu guzieren
 beti eskerrak emaiten dauzkizute.
 Heiekin batean eta aingeruekin
 guk ere adoratzten zaitugu, denek kantari diogula :

Denek Benedikatua Jaunaren izenean datorrena.
 Hozana zeru gorenetan ! (*bis*)

The musical notation consists of two staves in G major. The first staff contains the melody for the first line of lyrics, and the second staff contains the melody for the second line, which is a repeat of the first line.

Be - ne - di - ka - tu - a Jau - na - ren i - ze - ne - an da - to - re - na.

Ho - za - na ze - ru go - re - ne - tan. Ho - za - na ze - ru go - re - ne - tan.

Eskuak bildurik eta oparigaien gainerat zabaldurik

Aita guziz saildua,
 zuri gure esker ona erakusteko,
 ogia eta arnoa ekarri ditugu.
 Egin daitezela guretzat, Izpirituaren indarrez,
 Jesus zure Seme hilen artetik piztuaren
 Gorputz ✠ eta Odol.
 Horrela eskainiko dauzugu
 zure bihotz onak eman daukun dohain hau.

Arrats batez, Jesus, hil baino lehen,
 mahaian zagon bere Apostoluekin.
 Mahaitik ogia hartu
 eta, zuri eskerrak emanez, benedikatu zuen, zatitu,
 eta bere adiskideeri eman zien, erranez :

«HAR ZAZUE TA JAN GUZIEK HUNTARIK :
 HAU NERE GORPUTZA BAITA,
 ZUENTZAT EMANEN DENA.»

Gero, afal ondoan, kaliza arnoz betea hartu
 eta, zuri eskerrak emanez, benedikatu zuen
 eta bere adiskideeri eskaini zien, erranez :

«HAR ZAZUE TA EDAN GUZIEK HUNTARIK :
 HAU NERE ODOLAREN KALIZA BAITA,
 BATASUN BERRI TA BETIKOAREN ODOLA,
 ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
 BEKATUAK BARKATZEKO IXURIKO DENA.»*

Eta gero erran zien :
 «EGIZUE HAU NERE OROIGARRI.»

Jauna, Jesusek egiteko erran zaiguna
 egiten dugu orain :
 Haren heriotzea eta piztea ospatzen ditugula,
 biziaren ogia eta salbamenduaren kaliza
 eskaintzen dauzkizugu.

Jesusek bihotz onez zureganat eramaiten gaitu ;
 onar gaitzazu harekin batean.

Denek Kristo guregatik hil da ;
 Kristo hilen artetik piztu da.
 Zure zain gaude, Jesus Jauna !



Hainbeste maite gaituzun Aita,
 utz gaitzazu mahai huntarat hurbiltzerat,
 eta igorrazu Izpiritu Saindua,
 zure Semearen Gorputza eta Odola har dezagun,
 bihotz bat eta arima bat izan gaitezen.

Zuk, Jauna, ez duzu behinere nehor ahanzten ;
 horrengatik eskatzen dauzugu
 gogoan izan ditzazula guk maite ditugunak :
I. gure Aita Saindua,
I. gure Apezpikua
 gure burraso, haurride eta lagunak,
 eta lur huntarik zureganat joanak diren hil guziak.

Lehen kominioneko mezan :

Zonbait direnean kominiatuko dutenak :

Gaur, bereziki,
lehen aldikotz Eukaristia hartuko duten [I. eta I.]
gure haurride hauentzat
eskatzen dauzugu :
zure familiaren mahaian
biziaren ogia eta salbamenduaren kaliza
hartzera deitu dituzu ;
egizu handi daitezela beti
zure adiskidetasunean.

Bakarra denean kominiatuko duena :

Gaur, bereziki,
lehen aldikotz Eukaristia hartuko duen [I.]
gure haurride hunentzat eskatzen dauzugu :
zure familiaren mahaian
biziaren ogia eta salbamenduaren kaliza
hartzera deitu duzu ;
egizu handi dadila beti
zure adiskidetasunean.

Gogoan izan, Jauna,
sufritzen eta nahigabeturik bizi direnak,
zurea duzun kristauen familia osoa
eta munduko gizon-emazte guziak.

Jainko gure Aita,
zure Seme Jesu Kristoren bitartez
gure alde egiten dituzunak ikusi-ta,
harriturik gaude eta berriz ere goresten zaitugu :

Hunen bitartez, hunekin eta hunetan,
zuri, Jainko Aita guziahaldunari,
Izpiritu Sainduarekin batean,
ospe eta aintza guzia
gizaldi eta gizaldi guzietan. **℞. AMEN**

› *Segida : GURE AITA 486 or.*